

2006KO IRAILAREN 28KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko irailaren hogeita zortzian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira:, Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Xabier Arrasate Aierbe zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren gaur bertan aurkeztu berri den mozio bat presazko izaeraz tratatu edo ez jartzen da erabakigai eta zinegotzi gehienek mozioa oraindik ikusi ere ez dutela egin kontutan izanda hurrengo bilkurarako uztea erabakitzen da bertaratutako guztien adostasunez.

I.- AURREKO AKTAK.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkeztzen dira 2006ko ekainaren 8an, 2006ko ekainaren 29an eta 2006ko uztailaren 20an egindako bilkuretako aktak, idatzita dau den moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2005EKO KONTU OROKORRA.-

2005 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetaarako Batzorde Beregian aurkeztu zen, 2006ko ekainaren 6an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2006ko irailaren 27ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Ondoren 2005eko Kontu Orokorr hau berriro Kontuetaarako Batzorde Bereziak aztertu eta informatua izan da 2006ko irailaren 19ko bilkuran.

Hau honela, dagokion legeriak dioena jarraiki, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2005 ekitaldiko kontu orokorra onartu egiten du.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 2 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamenak irakurri dira.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du han barneratzen ziren zenbait kontzeptu direla eta, aurrekontuaren aurka bozketu baldin bazuten ere, aldaketa honetan barneratzen diren inbertsioekin ados daudela eta aldaketa proposamena bidezkoa iruditzen zaiola eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako partaide guztien aldeko botuekin honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 2 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	295.000,- €
VI	Inbertsio errealak	924.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.219.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako gerakina	41.837,25,- €
	<u>Sarrera handiagoak:</u>	
I	Zuzeneko zergak	168.162,75,- €
II	Zeharkako zergak	240.000,00,- €
III	Tasak eta bestelako zergak	46.000,00,- €
V	Ondare sarrerak	18.000,00,- €
VI	Inbertsioen besterenganatzea	35.000,00,- €
VII	Kapital transferentziak	420.000,00,- €

VI	<u>Deuseztapenagatiko bajak:</u> Inbertsio errealak	-250.000,00,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.219.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- LARREATEGI GUNeko LURJABEEKIN HIRIGINTZA HITZARMENA.-

Jarraian Larreategi inguruko gunearen jabeekin izenpetutako hirigintza hitzarmena ekartzen da Osoko Bilkura honen aurrera, honek hitzarmen hau berretsi dezan.

Hirigintza hitzarmen honen zehaztapen nagusiak honako hauek dira:

AURRETIKOAK :

I.- 2005eko maiatzaren 16an, alde batetik LAZKAOKO UDALA eta bestetik MARIA JOSE AGUIRRE JIMENEZ A., M^a JESUS GIMENEZ TORROBA A., JOSEFA IRAOLA MUJICA A., IGNACIA INSAUSTI IRAOLA A., FRANCISCA INSAUSTI IRAOLA A., MARIA IZASKUN AMUNARRIZ INSAUSTI A., MIGUEL IZAGIRRE AUZMENDI J. eta MARIA NIEVES SORALUZE ARAMENDI A., VICTORIANA ZABALETA JAUREGI A., MARIA PILAR IZAGIRRE AUZMENDI A. Zirelarik, alderdiek ezagutzen dutela adierazten duten hirigintza hitzarmena izenpetu zen. Errepi-
kapenak ekiditzeko hitzarmen hura ez da berriro hemen idatziko.

II.- AUSARTONDO, S.L. merkataritza sozietateak, 2006ko ekainaren 26an, Ordiziako notarioa den Ignacio Pagola Villar J.ren aurrean baimendutako eskritura bitartez, JOSEFA IRAOLA MUJICA A.ri dagozkion jabetza eta eraikuntza eskubideak eskuratu ditu eta, Jokin Errasti J. dionez, laister berak ordezkatzan duen soziedadeak VICTORIANA ZABALETA JAUREGUI A.ren jabetza eta eraikuntza eskubideen salerosketa eskriturak izenpetzea aurrikusita dago, eta guzti hau hitzarmen hartan 6 H.A.ko lursail jabeai esleitzen zaizkien jabetza eta eraikuntza eskubideei dagokienez eta aipatu dokumentuan era honetan identifikatzen zirenak *"6 HA Komunitate Ekipamenduko Sistemari dagokion Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Aldaketa Puntuala"* dokumentuak ukitutako gunearen Hegoaldeko mugarekin mugakide".

III.- OTEGI ERAIKUNTZAK, S.L. merkataritza-sozietateak, bere aldetik, hitzarmen honen izenpetzaile diren gainontzeko jabeai dagozkien aurreko paragrafoan definitutako jabetza eta eraikuntza eskubideak eskuratu ditu, kontratu pribatu bidez.

IV.- Aipatu hitzarmenean Udal Erakundeak bere gain hartutako betebeharren konplimentuan, LAZKAOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN berrikusketa dokumentuan, aurreko aurrekarian zehaztutako lur eta eskubideak 20 Hirigintza Jarduketa Arean - Larreategi- barneratu dira. 2006ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran aipatu berrikusketa dokumentua hasierakoz onartua izan da. Arau Subsidiarioen berrikusketa doku-

mentuan adierazitakoa hala izanik ere, oraingo dokumentu honen bitartez bere zehaztepanak aldatu egin nahi dira.

V.- Aurreko aurrekinak azaldu ondoren, hitzarmen honen xedea honako hauetan laburtzen da:

- 2005eko maiatzaren 16an izenpetutako hitzarmenean jasotako aurrikuspenak aldatu eta Lazkaoko planeamenduaren berrikuskapen dokumentuan 20 HJA -LARREATEGI-rako ezarriko diran zehaztapen berriak ezartzea.
- Gunearen kudeaketarako formula gisa konpentsazio sistema ezartzea, hala nola lursailen jabeek urbanizazio proiektua eta aipatu jarduketa sistemari dagozkion dokumentuak aurkezteko epeak .
- Udal Administrazioari eman beharreko irabazizko aprobetxamenduaren %10 zertan gauzatuko den zehaztea.
- Etxebizitzen ezaugarriak, hala nola hitzartutako prezioa etxebizitzaren prezio maximoa erregulatzea.

VI.- Aurrekoa azaldu ondoren, jarduten duten alderdiek ondorengo akordioetan xedatutakoarekin adostasunean gobernatuko dokumentu behartzaile hau formalizatzen dute:

AKORDIOAK

LEHENA.- LAZKAOKO UDAL PLANEAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BERRIKUSKAPEN DOKUMENTUAN 20 H.J.A. -LARREATEGI- RAKO JASOKO DIREN ZEHAZTAPENAK.-

Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuskapen dokumentuan, II aurrekinean zehaztutako lurrak, hirilur moduan sailkatuko dira eta 20 H.J.A. -LARREATEGI-n barneratuko dira. Gunearen gutxigora beherako azalera 13.231,00 m²takoa da.

Arau Subsidiarioetako Berrikuskapen dokumentuako guneari dagokion fitxaren zehaztapenetan, hemen Burutze Unitate bakarra mugatuko dela xedatuko da, honela guneko lurrak eta 6 H.A.tik datozenak barne hartuz.

20 H.J.A. -LARREATEGI- gunean guztira 94 etxebizitza baimenduko dira, 90 bloke tipologiakoak, 3 lursail bat edo bi etxebizitzakoak eta Larreategi etxea kontsolidatu egingo da. Blokeko 90 etxebizitzetatik, 69 prezio librekoak izango dira eta gainontzekoak Lazkaoko Udalarekin hitzartutako preziokoak. Azken hauen eraikuntza perfila honako hau izango da: garajetarako solairua edo solairuak eta etxebizitzetarako behe solairua eta lau solairu altueran. Etxebizitza bakoitzak garaje toki bat izan beharko du gutxienez sotoan.

Lazkaoko Udalak hasierako onarpena eman dio joan den 2006ko ekainaren 8an Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Berrikuskapen dokumentuari, lehen esan den bezala, eta bere eskuduntzakoak diren gainontzeko onarpenak ahalik eta arreta handienarekin izapidatu eta ematera behartzen da.

BIGARRENA.- URBANIZAZIO PROIEKTUA ETA BERDINTASUNEZKO-BANAKETA DOKUMENTUA.-

Burutze Unitatearen Urbanizazio Proiektua Konpentsazio Batzordearen Jarduketa Oinarriak eta Estatutuak, Arau Subsidiarioetako Berrikuskapen dokumentuaren behi betiko onarpena argitaratzen denetik hiru hilabeteko epean aurkeztuko dira Udal Entitatean.

Kompentsazio Batzordearen eraketako eskritura publikoa, Estatutu eta Jarduketa Oinarriak behin betikoz onartzen direnetik kontatzen hasitako bi hilabeteko epe maximoan egin beharko da, eta Kompentsazio Proiektua, hau Kompentsazio Batzordeak onartu ondoren, Lazkaoko Udalak Kompentsazio Batzordearen eraketako eskritura publikoa onartzen duenetik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da Lazkaoko Udalean bere onarpenarako.

HIRUGARRENA.- KONPENTSAZIO PROIEKTUAREN ZEHAZTAPENAK.-

Kompentsazio Proiektuak formulatuko duen berdin-banaketako dokumentuak, beste aurrikuspenen artean, honakoak jaso beharko dira:

- a) Bloke tipologiako 65 etxebizitzak barneratuko dituzten lursail eraikigarrietako lurjabe pribatuei esleipena. Hauetatik 50 salmenta librekoak eta gainontzeko 15ak hitzartutako preziokoak izango dira.
- b) Lazkaoko Udalari blokeko 25 etxebizitza barneratuko dituzten lursail eraikigarrien esleipena. Hauetatik 19 prezio librekoak izango dira eta gainontzeko 6ak hitzartutako prezio-koak.
- c) Lazkaoko Udalari etxebizitza bakar edo bikoak barneratuko dituzten hiru lursail eraiki-garrien esleipena.
- d) Larreategi Etxearen kontsolidazioa.

8 etxebizitza libre eta hitzartutako prezioko 2 etxebizitzen eraikuntza ahalbidetuko duten aprobetxamenduen esleipenarekin, eta aurreko c) atalean zerrendatutakoekin, betetzat joko da urbanizazioko zamentatik at egongo den irabazizko aprobetxamenduen %10a administrazioari ematearen betebeharra.

Gainontzeko 15 etxebizitzak -4 hitzartutako preziokoak eta 11 prezio librekoak- dagozkien proportzioan hartuko duten parte urbanizazioko gastuetan.

Hitzartutako prezioko etxebizitzak dagozkion kuotan hartuko duten parte urbanizazio gastuetan, baina zenbateko hori ezingo da inondik inora ere etxebizitzen salmentako azken prezioaren %12a baino handiagoa izan.

LAUGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO 15 ETXEBIZITZEN SUSTAPENA ETA ERAIKUNTZA.-

Hitzarmen hau izenpetzen duten lurjabe eta merkataritza elkarteek edo hauek ordezkatu ditzazketen pertsona fisiko nahi juridikoek hitzartutako prezioko erregimeneko

15 etxebizitzak eta hauei eranstea aurrikusten diren elementuak sustatu, eraiki eta salduko dituzte.

Etxebizitza hauen besterentzea Lazkaoko Udalak emandako zerrendan azaltzen diren pertsonen egingo da eta beraz etxebizitza hauetako etorkizuneko jabeen hautaketa prozesu guztia Udal Administrazioak egingo du.

Hitzartutako prezioko etxebizitzaren metro karratu erabilgarriaren salmenta prezio maximoa, Babes Ofizialeko Etxebizitzaren moduluaren 1,9 izango da eta obretako udal baimena emateko garaian indarrean dagoen modulua izango da. Eranskinen prezioa zehazterakoan -garaje eta trastelekuak hala balegokio-, babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzako prezioetan jarraitzen diren erizpide berberak jarraituko dira.

Materialen kalitateei dagokienean, gutxienez babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzan erabiltzen direnak izan beharko dute.

BOSGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA ETA SUSTAPENERAKO EPEAK.-

Hitzarmen hau izenpetzen duten lurjabe nahiz merkataritza elkarteek edo hauek ordezkatu ditzazketen pertsona fisiko nahiz juridikoek honako epe hauek betetzera behartzen dira:

- A) 15 etxebizitza eraikitzeako proiektu edo proiektuen aurkezpena Udaletxean: konpentsazio proiektuaren behin betiko onarpena argitartzen denetik bi hilabeteko epean.
- B) Eraikuntza lanen amaiera eta eskuratzailerik ematea hitzartutako prezioko 15 etxebizitzari dagokionean: 24 hilabete obrak hasteko baimena emandako hurrengo egunetik kontatzen hasita.

SEIGARRENA.- HITZARMEN HONETATIK ERATORRITAKO ESKUBIDE ETA BETEBEHARREN SUBROGAZIOA.-

Hitzarmen hau izenpetzen duten jabeek, dokumentu honen baitan sortzen diren eskubide eta betebeharrak konstatatzeko dituzte, egin ditzazketen bere finkien eskualdetan, beraietan titular berriek subrogatuko direlarik.

ZAZPIGARRENA.- MENDEKOTASUNA.-

Hitzarmen honen baitan alderdiek hartzen dituzten betebeharrak Gipuzkoako Foru Aldundiak Lazkaoko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikusketen dokumentuari behin betiko onarpena emateari baldintzatzen da, 20 HJA -LARREATEGI- dagokionean, dokumentu horretan ezartzen diren aprobetxamendu eta zamekin. Edozein aldaketa edo murrizketak indargabetzea eramango du berekin aurrikuspen berriak arautu bitartean.

Halaber, Lazkaoko Udalak dokumentu honetan ezarritako zehaztapen eta baldintzetan konpentsazio proiektuari behin betiko onarpena emateari baldintzatzen da.

Halaber, hitzarmen honen erabateko balioa berau Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak bere onespena emateari baldintzatzen da.

Azkenik, aplikarria den hirigintza legeriaren aldaketa posible batek edo legeri berri bat indarrean sartzeak ekar dezakeen aipatu Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskapenak ezarritako oinarritzko zehaztapenen aldaketari baldintzatzen da.

ZORTZIGARRENA.- HITZARTUTAKO PREZIOKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA LANEN GAINBEGIRATZEA.-

Jabegoak ontzat ematen du, hitzartutako prezio erregimenean berak sustatuko dituen 15 etxebizitzaren eraikuntzan, Udal Administrazioak lanak gainbegiratzeko.

Gainbegiraketa honek izendatutako teknikari edo teknikarien bitartez egingo da eta hauen kostua ezin izango zaio jabegoari kargatu.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, hitzarmen honen izenpetzea berretsi egiten du.

VI.- 18 H.A.KO (SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUA) XEHETASUN AZTERKETA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 18 Hirigintz Areako 1 Burutze Unitatea gureko -San Prudentzio Ermita inguruan- Xehetasun Azterketari 2006ko uztailaren 11ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Peñagarikano Etxegileak, S.L.k aurkeztu du, Jose Mari Alberdi arkitektoak idatzitakoa da eta Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren 2006ko irailaren 19ko datako bisatua darama.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da, iragarkiak 2006ko uztailaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2006ko uztailaren 13ko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz, eta jendaurreko epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, aho batez, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 18 Hirigintz Areako 1 Burutze Unitateko -San Prudentzio Ermita inguruan- Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VII.- ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSKETAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA.-

Lazkaoko Udalaren Osoko Bilkurak, 2006ko ekainaren 8ko akordio bidez, Roberto Garcia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek eta Jon Orue-Etxeberria Iturri abogatuak idatzitako Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuskaketa dokumentua hasierako izaeraz onartu zuen.

Dokumentua jendaurrean egon da hilabete bateko denboraldian, iragarkiak ekainaren 28 datako "Berria" eta "Diario de Noticias" egunkarietan eta 2006ko ekainaren 29 datako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zirelarik. Epe horretan 13 alegazio aurkeztu dira.

Baita ere, eta denboraldi berean, jendaurrean egon da Arau Subsidiarioen Berrikuskapen honi dagokion Ingurumenaren Gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio Azterketa dokumentua.

Aurkeztutako alegazio hauen aurrean, dokumentuaren tekniko erredaktatzaileek honako txostena idatzi dute:

1 ZBK.DUN ALEGAZIOA (ERREGISTRO ZBK. 2563), VICENTE GARMENDIA Aiestaran Jn.k AURKEZTUTAKOA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA

Aurkeztutako alegazioan zera eskatzen da: "Meandro"-rako egiten den mugaketa bere errealitate fisikora ahokatzen ez denez, alegatzailea Lazkaoko Udalarekin batera lursail zati baten jabea den gunean, mugaketa hori birkontsideratzea, ukitutako lursailak barneratuz.

2.- KONTSIDERAZIOAK

Arau Subsidiarioetako Arau Orokorrek, 1.2.4. artikuluan ezartzen dute, urbanizatzeko gai den lurlean formulatu beharreko garapen planeamenduak (zatikako plana) edo hiritar lurzoruan formulatu beharrekoak (plan berezia) doikuntzak sartu ditzazketela alde batetik antolatutako erabilera orokorreko guneen eta bestetik lurzoru ez urbanizagarriaren arteko muga, honela, gune horien azalera inolaz ere ez dadin handitu edo txikiagotu %5a baino gehiagoko portzentaian.

Era berean, hiritar lurlean eta urbanizatzeko gai den lurlean, planeamendu xehakatuak (plan berezia eta zatikako plana) mugakideak diren Hirigintz Jarduketara Areen arteko muga doikuntzak sartu ahal izango ditu, beti ere, ukitutako azalerak H.J.A. txikiaren %5a gainditu gabe. Honek ez luke AA.SS.en Aldaketa suposatuko.

3.- ONDORIOA

Proposatutako aldaketaren izaera puntuala, eta bere egokitasuna aurrerago aztertzeko aukera kontutan hartuz, hain zuzen ere garapen planeamendua idazten denera (kasu honetan zatikako plana), egokiago kontsideratzen da alegazioa bere formulazio fasera bideratzea. Proposatutako aldaketaren izaera puntuala kontutan izanda eta garapeneko planeamendua idazterakoan (kasu honetan zatikako egitasmoa) bere egokitasun eta egiazkotasuna xehetasun gehiagoz aztertzeko aukera izanik, hau formulatzen denerako igortzea egokiago ikusten da.

2. ALEGAZIOA (ERREG. ZB: 2686), MARIA ANGELES AYERBE ELICEGUI ANDREAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan honako hau eskatu du: Areso kaleko 7. zenbakiko “Intxaurrondo Txiki” eraikinen ordeztu, etxebizitzetara osatutako eraikina altxatzea. Eraikin honek, sotoko solairua, beheko solairua, hiru solairu altu eta teilatupeko solairua izango litzateke. Bertan garajeak, dendak eta 16 etxebizitza egingo lirateke.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Aurkeztutako proposamena kokatzen den “Gune Historikoa” HIA 8rako Arau Subsidiarioen helburu nagusia, eginak dauden eraikinak finkatzea da, era horretan eremuaren ingurune-baldintzak babesteko; izan ere, arauzko eraikuntza-aprobetxamendua, eraikuntzek gaur egun duten formaren emaitza da.

Aztertutako proiektu honetan ezarritako arauak alde batera utzita, goian aipatutako irizpide orokor hori jarraitzen dute, ahal duten neurrian, herriaren hirigintza-memoria gordetzen saiatzen diren hurbileko esparru edo eraikinekin lotutako beste hainbat jardueratan. Inguruko eraikin edo esparru horien artean daude: “Intxaurrondo” baserria, Areso kaleko 3. zenbakia, Hiribarren kaleko 10 eta 16 zenbakidun eraikinak, “Asundegi” etxea, eta abar.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

3. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2688), JOSE DOMINGO IZAGUIRRE ARRUABARRENA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, “Enpaundi” izeneko baserriaren birgaitze-lanen bitartez, gaur egun dagoen etxebizitza bakarraren ordeztu bi egiteko baimena eskatu dute.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

“Enpaundi” HIA 12ren fitxa partikularrak, eremu osorako, 274 etxebizitza aurreikusi ditu (272 etxebizitza berri, eta Zatiko Planak finkatu beharreko beste bi). Horietatik 66k, Udalak eta jabetzak izenpetutako hirigintzako hitzarmenean ezarritako baldintzen arabera, Udalak adostutako prezioa izango dute.

Bestalde, Eremua lurzoru urbanizagarri bezala sailkatzen da eta dagokion Zatiko Plana formulatuta garatu beharko da.

Proposatutako etxebizitzaren kopurua eta Zatiko Plana idatziz –etxebizitzaren banaketa zehatzarekin– behin betiko antolamendua zehazteko premia kontuan hartuta, hobe da “Enpaundi” baserriak izan behar dituen etxebizitzak tresna honek definitzea. Edozein kasutan, fitxa partikularrean ezarritako irizpideak eta helburuak kontuan hartuta, Zatiko Planak finkatu beharko du eraikina. Horrenbestez, baserriaren kanpoko itxura gehiegi aldatuko luketen eraiste-lanak egin gabe, eskatutako bi etxebizitzak birgaitzeko egindako eskaera baimenduko da.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioaren kalkulua, "Enpaundi" HIA 12ren Zatiko Plana egitearekin lotzea proposatu dute.

4. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2688), KEPA ZUBIARRAIN ERAUSKIN JAUNAK AURKEZTUA, BERE IZENEAN ETA LAZKAOKO KULTUR BILGUNEA ARERIA-REN ORDEZKARI BEZALA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, jauregi-etxearen ondoko eraikina (Elosegi kaleko 30. zk.) eraisteko eta, bere ordeztu, eraikin horren, eta zahar-etxea eta "Orobione" eguneko zentroa dauden eraikinaren artean beste bat altxatzeko proposatu dute, batez ere 30 zenbakidun eraikinari ("Elkartetxe") ekarriko lizkiokeen hainbat abantaila eta ekarpen argudiatuta.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Aurkeztutako proposamena aztertuta, kontuan hartu beharrekoa:

- Egia da, ordezkatzeko proposatu den alboko eraikina (Elosegi kaleko 32. zk.) kentzeak, jauregi-etxearen (Elosegi kaleko 30. zk.) gaur egungo egoerari zenbait hobekuntza ekarriko lizkiokeela, hala nola, hasierako iparraldeko fatxada berreskuratzeko aukera, eraikin horren barrualdeko pieza jakinak argitu eta aireztatuko dituzten fatxada honen hainbat bao zabaltzeko aukera, eta bere gaur egungo itxura eta jauregi-etxe bezala dituen balio arkitektonikoak berreskuratzeko aukera.
- Aitzitik, eraikin berriak oinplanoan, 32. zenbakikoaren neurri berberak izango lituzkeela suposatuta (alderdi hau ez da alegazioan zehazten), honako ondorio hauek izango lituzke:
 - Hiriko espazioan puntu honek gaur egun duen iragazkortasuna murriztea, "Orobione" eraikinaren eta 32. zenbakidun eraikinaren arteko distantzia 14 m-tik 7 m-ra pasatuta. Distantzia hori txikiegia da.
 - Aurrealde ia jarraitua baina, aldi berean, hautsiegia, Elosegi kalerantz, eraikinaren arteko distantzia desberdina, eta eraikin zaharren eta berriaren artean fatxada-aurrealde erlazio desberdinak.
 - Fatxadaren zabalera eta altueraren arteko erlazio desorekatuko eraikina.
- Azkenik, garapen iraunkorraren ikuspegitik, hegoalderantz begira dagoen fatxada berreskuratzen dela argudiatzen duen alegazioan emandako arrazoia oker dago, iparralderantz begira dagoen fatxada berreskuratzeko litzatekeelako.

3.- ONDORIOA.

Jauregi-etxearen ondoko eraikina eraistea eta 30 zenbakidun eraikinaren jatorrizko egoera, edo oso antzekoa, berreskuratzeko izango luketen interesa kontuan hartu

arren, aurkeztutako alegazioa ez onesteko proposatu dute aurreko idatz-zatian adierazitako arrazoiengatik.

5. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2729), FRANCISCA ARROYO GAGO ANDREAREN ETA AGURTZANE LASA ANDREAREN IZENEAN JOSE M^a ABAD URRUZOLA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, “BIONA” HIA 5etik “ONDARRE BERRI” etxea kanpoan uzteko proposatu dute, garatu gabeko lurren eta dagoeneko eraikia dagoen lursailaren problematikak bereizi ahal izateko; era horretan, bertan dagoen etxea ordezkatzeko gastuak ordaintzeko nahikoa aprobetxamendu-esleipena baimendu ahal izango da.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Honen inguruan adierazi behar da, “Ondarre Berri” etxea ordezkatzeko, printzipioz, ez dela premia objektiborik ikusten interes orokorreko ikuspuntutik; horregatik, egokiago ikusten dute eremuaren antolakuntza sakonago aztertu ondoren erabakitzea. Modu horretan, aukera hori, ikuspegi orokorrago batetik aztertuko da, eremuaren antolamendu eta problematika orokorrarekin batera.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

6. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2731), ASIER ASTEGUIA BEGUIRISTAIN JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan honako hau proposatzen dute: “Asundegi” etxearen ondoko eraikina berriz altxatzeko baimena ematea, lerrokatze eta sestra berberekin, eta 2006ko ekainaren 2an 2.058 sarrera-erregistroko zenbakiarekin egindako hirigintzako kontsultan zehazten ziren fatxada eta estalki lau berriak egiteko aldaketekin.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Aurkeztutako proposamena, Aztertzeko proiektu honen helburutik pixka bat urruntzen bada ere, A.30 Garapen Baxuko Eraikuntzako Egoitza Zonarako Arau Partikularrak honako hau ezartzen duela adierazi behar da:

* *Eraikuntzaren baldintza partikularrak:*

- *Eraikuntza-aprobetxamendua erregulatzeko baldintzak: eraikuntza-aprobetxamendu arau-emallea, eraikinen gaur egungo formarena izango da.*

- *Eraikinaren forma erregulatzeko parametroak: eginak dauden eraikuntzen profila eta altuera finkatzen dira.*

Bestalde, Eremurako irizpide eta helburu bezala, eraikuntzari zein urbanizazio finkatuari dagokienean, eremu horren ezaugarri orokor eta inguruneak finkatzea planteatzen dute.

Aipatutako hirigintzako kontsultan egindako proposamena, Eremurako proposatutako irizpide orokorren aurka doanez, proposamen hori okerra dela uste dute; hala ere, "Asundegi" etxearen ondoko eraikina ordezkatzeko, gaur egun dituen lerrokatze, profil, altuera, forma eta aprobetxamenduaren inguruko ezaugarri orokorrak mantentzen baituzte.

3.- ONDORIOAK.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

7. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2732), JOSEBA E. ASTEGUIA ECHEVERRIA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, bertan dagoen txabolaren azalera berberean garajea eraikitzeko baimena eskatu dute. Horretarako txabola pixka bat mugitu edo eraikinera atxiki beharko da, bisten eta mugen distantziak errespetatuta.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Aurkeztutako alegazioak, lursail pribatuan bertan, Arauek finkatzen duten eraikin bat birkokatu beharra eskatzen du. Horregatik, ordezkatu nahi duten txabolaren gaur egungo aprobetxamendua eta garapen baxuko eraikuntzako egoitza-lursailentzako Arau Orokorrek ezarritako baldintzak gordetzen dituzten bitartean, ez dago aurkeztutako alegazioa onartzeko arazorik.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa, aurreko idatz-zatian zehaztutako baldintzetan onesteko proposatu dute.

8. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2733), GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA ZUZENDARITZA NAGUSIKO ONDARE HISTORIKO ARTISTIKO, ARTXIBO ETA MUSEOEN ZERBITZUAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan honako hau proposatu dute: hainbat eraikin kultur ondasun bezala sailkatzea, eraikin kalifikatuek edo babes berezia dutenek zaharberritze zientia-

fikoan oinarritutako lanak behar dituztela, eta toki jakinak babestu beharra duten ondasu-nei, eraikitako zatietara mugatutako jarduera-motaren bat egitea, eraikina goitik behera aldatzea eskatuko duten eraberritze-lanak saihestuta.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Hirigintzako Ondarearen Katalogoan sartzeko proposatu dituen eraikinei dagokienean, honako hau adierazi behar da:

- Aurri-egoera larrian zegoen “Maiz Bide” baserria, behin betiko onartu dituzten 1. Sektoreari buruzko Arau eta Zatiko Planen Aldaketan ezarritakoaren arabera eraitsi dute.
- “Intxaurrondo” etxea ordezkatzeari aurreikusita dago, gaur egungo eraikinaren ezaugarri orokorrak mantenduta, behin betiko onartu dituzten 1. Sektoreari buruzko Arau eta Zatiko Planen Aldaketan ezarritakoaren arabera.
- Zubierrekako zubiaren ordezkari, Zubierreka industria-poligonora sartzeko zubi zabalago bat eraikitzea aurreikusi dute.
- Beste eraikinei dagokienean (“Agerre”, “Imaz-Zaharre”, “Komendradi” baserriak, “Untzindegi” etxea -Hirigoien 5- eta “Gregorio Enea” etxea –Elosegi 1-), ez dira aintzako-tzat hartzen babes-maila berezia emateko.

Eraikin kalifikatuek edo babes berezia dutenek zaharberritze zientifikoan oinarritutako lanak behar dituztenari buruz, eta toki jakinak babestu beharra duten ondasunei, lehendabizi, eraikitakora mugatuko den lanen batean, eta ez, aldaketa sakona eragingo duen zaharberritzean oinarritutako lanen bat aplikatzeari buruz, egoki ikusten dute bi baldintzak hirigintzako ondarea “Babesteko Arauen” artean sartzeari.

3.- ONDORIOAK.

Alegazioa onestea proposatu dute honako arlo hauetan: Eraikin kalifikatuek edo babes berezia dutenek zaharberritze zientifikoan oinarritutako lanak behar dituztenari dagokionean, eta toki jakinak babestu beharra duten ondasunei, lehendabizi, eraikitakora mugatuko den lanen batean, eta ez, aldaketa sakona eragingo duen zaharberritzean oinarritutako lanen bat aplikatzeari dagokionean.

9. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2734), JUAN CARLOS GONZALEZ SEPULVEDA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, HIA 18an dagoen lursaila eraikigarri bezala sailkatzeko eskatu dute.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Aurkeztutako alegazioa, Aztertzekeo proiektu honen Aurrerapen-dokumentuari egin-dako iradokizunen txostenean aztertu zuten; eta bertan proposatutako irizpideak eta hel-buruak, eta eraikuntza horrekiko eta kokatua dagoen ingurunearekiko baldintzak aldatu ez direnez, bidezkoa iruditzen zaie, bere garaian "Agerre"ren hegalarekiko egingo duten az-terketaren mende jartzea euren iritzia. Esparru horren barne geratuko litzateke aipatutako eraikina, zona urbanizatzeko prozesura sartu ahal izateko.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

10. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2757), "FUNDICIONES LAZKAO" ERAKUNDEAK AURKEZ-TUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, "F. Hiribarren" HIA 3rako egindako planteamendua be-rriz aztertzekeo proposatu dute, enpresa, herriko beste toki batera eraman ahal izateko.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Hasieran onartu ondoren, jendaurrean jarritako dokumentuak, "Fundiciones Laz-kao" enpresaren instalazioak gaur egun kokatuak dauden tokian sendotzekeo aurreikusi du. Horrek, hala ere, hasieran behintzat ez du bere instalazioak hobetu eta eguneratzeko hel-buruarekin, beste toki batera eramateko aukera baldintzatzen.

Bestalde, Aurrerapen-dokumentuan Eremu hori bizitegi-esparruan eraldatzea az-tertzen zen. Horrek, proposatutako aprobetxamenduekin, lurren balioa handitzea ahalbi-detzen zuen; eta honek, aldi berean, sortutako lurzorua balioa handitzean oinarrituta, enpresa beste toki batera eramateko aukera ematen zuen.

Goierriko Lurraldearen Zatiko Planak –oraindik ez da onartu eta, horrenbestez, ez dago indarrean– proposamen hori babesten zuen. Plan horretan, Agauntza ibaiaren ezke-rraldean dentsitate ertaineko egoitza-garapena aurreikusten zuten, baina gutxienez 16 urtetan egiteko aurreikusi zuten.

Bestalde, Lazkaoko herri osorako 1.000 etxebizitza berri esleitu dituzte, eta enpre-sa helegilea tokiz aldatzea ahalbidetuko lukeen HIA 3 bizitegi-eremu bezala sailkatzeak, etxebizitza berrien kopurua handituko luke edo hasieran onartuta dituzten plangintza xe-hatuak dituzten beste eremutan etxebizitza-kopurua murriztu beharko litzateke. Egoera horretan daude "Iturgaitzaga" HIA 6 edo "Enpaundi" HIA 12.

Horrek ez du esan nahi, herriko gainerako guneen bizitegi-garapenaren arabera – Arau Orokorrek Proiektu hau aztertzekeo aukera aurreikusten dute, beste hainbat gauzaren artean, planifikatutako etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien %75 ematen dutenean–, etorkizunean Eremu honetarako bizitegi-garapena berriz proposatu ezin denik.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

11. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2759), JUAN APAOLAZA ESNAOLA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioaren bitartez, "Kanpandegi-Amebi-Meandro" HIA 21en barne dauden hainbat lursailetarako sarbideak zein egoeratan geratuko diren jakin nahi du.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Horren inguruan adierazi behar da HIA 12ren garapena eta konfigurazio zehatza, Zatiko Plan bat eginez burutu behar dela, eta Arau Subsidiarioak Berrikusteko proiektuan jasotako antolamendua orientagarria baino ez denez, tresna horrek definituko ditu aipatutako lursailak zein baldintza zehatzetan geratuko diren.

3.- ONDORIOA.

Horrenbestez, aurkeztutako alegazioa, Eremurako aurreikusitako Arau Subsidiarioen erabakiak garatuko dituen Zatiko Plana egiteko igortzea proposatu dute.

12. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2773), JOSE M^a ECHEVERRIA LASA JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Aurkeztutako alegazioan, "Biona" HIA 5en 96,75 eta 85,8 etx./Ha bitarteko dentsitatea handitzeko proposatu dute, antolamenduan aurreikusitako errepidea barne sartzen den ala ez kontuan hartuta.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Eremuaren inguruko azterketa ekonomiko txiki bat eginda, esan daiteke proposatutakoa bideragarria dela. Horregatik ez dago adierazitako dentsitatea handitzeko premiarik, ez eta fitxa partikularrak proposatutako urbanizazio-baldintzak aldatzeko ere.

Edozein modutan aipatu behar da, "Enpaundi" HIA 12ren kasuan proposatutako dentsitatea, jabetzaren eta Udalaren artean izenpetutako hirigintzako hitzarmenaren mende dagoela. Bere ezaugarriengatik, jabetzari dagokion behin betiko dentsitate garbia "Biona" HIA 5en antzekoa da; eta "Iturgaitzaga" HIA 6an, bere bideragarritasuna bermatzeko, aurreikusitako dentsitatea eskatzen duten urbanizatzeko baldintzak aurreikusi dira (Eremuan sartzeko GI-2120 errepidean biribilgunea egitea, saihesbidea zuzentzea, 51 etxebizitza eraitsi eta beste leku batera eramatea bizitzera, eremuaren urbanizazioaz gain).

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

13. ALEGAZIOA (ERREG. ZB.: 2862), PEDRO RISUEÑO MORENO JAUNAK ETA JAVIER GARATE ITURBE JAUNAK AURKEZTUA.-

1.- ALEGAZIOAREN EDUKIA.

Goierriko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planean hartutako erabakiak ez direla bete eta lurrak industriarako bezala kalifikatzeak okerra izan dela argudiatuta, "Fundiciones Hiribarren" HIA 3ri dagokionean aurreikuspenak aldatzeko eskatu dute alegazio honetan.

2.- GOGOAN HARTU BEHARREKOAK.

Hasieran, eta Alkateak egindako lanak aipatuta, Hitzarmen bat formalizatzeko jarraitutako pausoak adierazi dituzte. Txosten hau teknikoak denez, ez dute aztertu bertan aipatutako aurrekariak eta benetan gertatutakoa bat ote datozen.

Aldez aurreko xehetasun hau aipatuta, bertan izenpetutako teknikariek Alkateari, ezinezkotasun juridikoaren berri eman ziotela adierazi behar da. Eta hori, aipatutako lurrak programatu gabeko edo sektoretu gabeko lurzoru urbanizagarri bezala sailkatzeari buruzko alegazioaren lehen idatz-zatian berresten dute. Izan ere, aztertzen den udalaren plangintza orokorra, Arau Subsidiarioaren irudiaren bitartez antolatzen da. Irudi honek debekatua du sailkapen interesatua ezartzea, besteak beste, 1989ko apirilaren 28ko (RJ 1989\3301) eta 1995eko abenduaren 5eko (RJ 1995\8995) epaietan jurisprudentziak berretsi duen bezala.

Alegazioarekin jarraituta, eta Goierriko Eremu Funtzionalaren Lurraldearen Zatiko Planari buruz egiten dituzten aipamenekin lotuta, azpimarratu behar da Plan hori ez dutela behin betiko onartu; horregatik, bertan hartutako erabakiak ez dira lotesleak Lazkao udalerrarentzat eta, horrenbestez, udalerrri honek garatu eta/edo onartzen duen plangintza orokorrerako. Halaber, aurreikusitako erabilerei eta bizitegien kopuruari dagokienez, gutxienez 16 urteko eperako proposatutako dokumentua denez, LZPa onartuta egongo balitz, 8 urterako diren Arau Subsidiarioek ez lukete planean kontuan hartutako garapen osoa jaso beharko.

Hasieran onartutako Aztertzeako dokumentuak proposatutako erabilerak eta antolamendua egokiak ote direneko gaiaren inguruan, adierazi behar da dokumentuak, gaur egun indarrean dauden Arau Subsidiarioek gai horren inguruan ezartzen dutena sendotu baino ez duela egiten.

Azkenik, lurzoru horiek bizitegi-erabilerarako ez sailkatzea, Udal Administrazioak plangintza lantzeko duen eskumena baino urrunago doala eta arbitrariotasunean erortzen dela adierazten duten zeharkako aipamenekin lotuta esan ez gatozela bat aipamen horiekin; izan ere, etxebizitza berriei buruz hasieran Aurrerapen-dokumentuan biltzen ziren aurreikuspenak asko murriztu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurraldearen Antolamendurako Batzordeko arduradunen aginduta. Organo honek, beste hainbaten artean, udalaren plangintza orokorreko dokumentuen etxebizitza-kopuruari buruzko alderditan txosten loteslea egiteko eskuduntza du; halaber, organo honi aurkeztu zitzaizkion irizpide, helburu

eta irtenbide orokorrak biltzeko dokumentuaren edukiak. Organo honek emandako agin-
duek behartu dute hasierako aurreikuspenak murriztera eta berriz aztertzerara, eta hiri-in-
guruneko bilbea lohiz beteko dituzten lurzoruei bizitegi-kalifikazioa eman die.

3.- ONDORIOA.

Aurkeztutako alegazioa ez onartzea proposatu dute.

Bestalde Udal Hirigintza Batzorde Informatzaileak, gai honen inguruan egindako
azterketeten ondoren, dokumentuan honako aldaketak egitea proposatzen du:

Gune historikoan, bikarioetxe ondoan kokatzen den eraikinaren (Elosegi kalea 38 zbkia.)
kontsolidazioa proposatzen da.

1 H.J.A. "C.A.F."en garapenerako idatziko den Berariazko Egitasmoak Senpere eta Ordizia-
ren arteko (GI-4491) trazatua aldatu edo arearen barruan Agauntza errekaaren paraleloa
izango den beste bide alternatibo batekin ordeztu ahal izatea proposatzen da.

Elosegi kaleko 10etik 18ra bitarteko eraikinetako sotoetarako aurrikusten den erabilera
arabidea Uhaitz 1eko eraikinari luzatzen zaio baita ere eraikuntza unitate bakarra osa-
tzen dutelako.

2 H.J.A. "Ibabe-Pingon"en, "Pingon" eraikinaren atzekaldetik eta errekaaren paraleloan bi-
degorri baten eraikuntza aurrikusiko da.

Kirol instalakuntzen handikuntza aipatzean (Kiroldegia) "estali gabeko igerileku"en erai-
kuntzaren aipamena "ekipamendu gune" aipamenarengatik ordezteak proposatzen da.

15 H.J.A. "Sta. Magdalena-Mikelar-San Jose"ko a.20.1 lursailean aurrikusitako eraikuntzak
(B.- Hirigintza Arauak, Arau Partikularrak dokumentuaren 15.3 planoa) area bereko a.30.1
lursailean aurrikusitako eraikuntzaren perfil baldintza berdinak izango ditu, hau da II/I.

Bai Serna zinegotziak (PSE), bai Olasso zinegotziak (PP) gaiaren inguruko hainbat
argibide eskatzen dituzte eta alkateak eskatutako argibideak ematen dizkie.

Goenaga zinegotziak (EA) esaten du beraiek gai honetan parte zuzena izanik, abs-
tenitu egingo direla.

Guzti horren aurrean, Udal Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, PSE, PP), aurkako
boturik gabe eta bi abstentzioz, eta beraz, Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko bo-
tuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

1.- Arau Subsidiarioen Berrikuskapen dokumentua jendaurrean egon den garaian jasotako
alegazioak Tekniko erredaktatzaileen egindako txostenean proposatu moduan onartu,
ezestu eta erantzutea.

2.- Hirigintza Batzorde informatzailearen proposamenak, azalpen zatian zerrendatutakoak,
dokumentuan barneratzea.

3.- Arau Subsidiarioen Berrikuskapen dokumentu hau behin behingoz onartu eta dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundira bidaltzea, honek behin betiko onarpenari buruz ebatzi dezan.

Goenaga zinegotziak (EA) bilkura utzi egiten du une honetan.

VIII.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Alkateak, ordenantza fiskalen inguruan, 2007ko urtarrilean indarrean sartuko lirakeen aldaketen proposamenaren azalpena egiten du.

Orokorrean 2005eko irailetik 2006ko abuztura Euskal Autonomi Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indizeak izan duen igoeraren pareko igoera, hau da, %3,6ko igoera planteatzen da ordenantza fiskaletan.

Salbuespen gisa, zabor bilketa zerbitzua eta ura eta estolderia zerbitzuak lirateke. Zabor bilketaren kasuan %5eko igoera planteatzen da. Uraren kasuan berriz honako igoerak planteatzen dira:

- etxebizitzetarako urean, finkoa %10a eta aldakorra %15.
- etxebizitzetarako ez den urean, finkoa %10 eta aldakorra %20.

Bestalde honako hauek proposatzen dira baita ere:

- Hilerrian nitxoak jarri direnez, tarifa berri bat sortzea, nitxoetan egindako hilobiraketetarako. Egindako ekonomi-finantzario azterketan oinarrituz, hilobiratze bakoitzeko 193,85 €ko tarifa ezartzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du KPIren gaintiko igoeren aurka daudela eta beraz proposamenaren aurka bozkatu duela.

Olaso zinegotziak (PP) gauza bera esaten du, gustatauko litzaiokeela alde bozkatzea baina KPIren gaintiko igoerekin ezinezkoa zaiola.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko zazpi botu (EAJ, EA) eta aurkako bi botuz (PSE, PP), honako erabaki hauek hartzen ditu:

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

IX.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 1. ETA 2. ZERTIFIKAZIOAK.-

San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisasola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen lehen eta bigarren zertifikazioak luzatu ditu. Lehen zertifikazioaren zenbatekoa EHUN ETA BAT MILA ETA HAMALAU EURO eta BERROGEITA ZAZPI ZENTIMotakoa (101.014,47 €) da eta bigarren zertifikazioarena berriz BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO eta BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMotakoa. Lan Hauek CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioak aztertu eta bere oneritzia eman die.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen lehen eta bigarren zertifikazioak onartzea erabakitzen du.

X.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik mozioari buruz galdetzen dute eta Alkateak bilkuraren hasieran hitzegindakoaren berri ematen die, hau da mozioa hurrengo bilkuran eztabaidatzeko utzi dela. Gaineratzen du Osoko Bilkurara bertaratutako jendeak mozioaren berri izan dezan mozioa irakurri egingo duela eta hala egiten du.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du ez duela ulertzen mozioa zergatik irakurri den.

Alkateak erantzuten dio hasieran erabakitakoa mozioa ez eztabaidatzea izan dela eta mozioa ez dela eztabaidatu.

XI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko bederatzia hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.